



ZER DA EUSKARALDIA?

Nahi edo ahal beste hitz egiten al duzu euskaraz?

Euskaraldia hizkuntza ohiturak euskarara gehiago ekar ditzazun lagunduko dizun ariketa praktikoa da. Hau da, **euskara gehiago, gehiagotan eta jende gehiagorekin egiteko elkarrekin egiten dugun ariketa sozial erraldoia.**

NOIZ EGINGO DUGU?

Gaur bertan has zaitezke praktikatzen, baina, Euskaraldia ariketa **maiatzaren 15etik 25era** izango da, 11 egunez.



NORK PARTE HAR DEZAKE?

Euskaraz ulertzen duten 16 urtetik gorako herritarrek.

NOLA EGINGO DUGU?

Denok batera! **Ahobizi edo belarriprest txapa jantzita.** Txapak aurrean dugunari mezu argia helarazten dio: **nirekin egizu euskaraz, lasai!**



1. LEHEN HITZA EUSKARAZ EGITEA

Ezagutzen ez duzun horri galdera bat egin nahi diozunean, edo denda edo taberna batera zoazenean, **zein hizkuntza erabiltzen duzu lehen eskaera hori egiteko?** Pentsatu gabe egiten dugunean, **askotan, erdarara jotzen dugu.**

Bada, lehen hitza euskaraz egiteko ohitura hartuta sorpresa on asko jasoko ditugu eta euskarari bide asko zabalduko dizkiogu, ziur!

2. ERDARAZ ERANTZUNDA ERE... EUTSI EUSKARARI!

Euskara ulertzen duen horrekin, zergatik ez euskaraz hitz egin? **Berak erdaraz erantzuten badizu ere, ulertzen duen bitartean, jarrai dezakezu zuk euskaraz hitz egiten.** Elkar ulertzea da helburua, ezta? Hori ere ohitura kontua baino ez da!

Beraz, esaiozu euskaraz ulertzen duen lagun horri, Euskaraldiak irauten duen 11 egun horietan behintzat, zuk euskaraz egingo diozula.

ETA ZUK EGIN ALA EZ, ESKATU ZURI EUSKARAZ EGIN DIEZAZUTEN!

NIREKIN BETI EUSKARAZ!

